

ESTATUTUEN ALDAKETA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA
ASTI LEKU IKASTOLA S.COOP.

Portugalete, 2023ko apirila

SARRERA

ASTI LEKU IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEKO Errektore Kontseiluak, bere eginkizunak betez, gure estatutu-araudian zenbait aldaketa egiteko beharra ikusi du. Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 78.1 artikulua Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen martxoaren 29ko 59/2005 Dekretuaren 67.1 c) artikuluari dagokionez emandako agindua betez, haren administratzaileok ERAKUNDEAREN ESTATUTUEN ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOARI BURUZKO TXOSTEN HAU egiten dugu.

Horrela, aipatutako araudia betez, txosten hau egiten dugu, helburu bikoitzarekin: lege ezarritako izapideak betetzea, eta egin nahi diren eta jarraian xehatuko diren aldaketen alderdi zehatzen berri ematea bazkideei.

Txosten hau, proposatutako aldaketak jasotzen dituen testu bateginarekin batera, bazkideen eskura egongo da kooperatibaren egoitza sozialean, Batzar Nagusirako deialdia egiten denetik aurrera. Eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 78. artikulua ezartzen duenez, Batzar Nagusi horren gai-zerrendan, esandako aldaketak onartzea sartuko da.

ALDAKETAREN ARRAZOIA

Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea indarrean sartzeak, haren bigarren xedapen iragankorraren arabera, behartu egiten du kooperatiba-sozietateek, legea indarrean jarri eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi urteko epean, estatutuak berrikustera eta lege horretan jasotako aginduzko arauetara egokitzera. Era berean, epe hori igarotakoan, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan ez da kooperatiba-sozietatearen agiririk inskribatuko estatutu sozialen egokitzapena inskribatu arte. Inskripzio-debekutik salbuetsita daude legera egokitzeko erabakia, administratzaile, kudeatzaile, zuzendari nagusi eta likidatzaile gisa diharduten pertsonen kargu-uzteari edo dimisioari buruzko tituluak, ahalordeak errebotatzea edo ukatzea,

bai eta sozietatea eraldatzea edo desegitea, likidatzaileak izendatzea, sozietatea likidatzea eta azkentzea, eta agintaritza judizialak edo administratiboak agindutako idazpenak ere.

Ondoren, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea aldatzen duen urriaren 7ko 5/2021 Legeak 2023ko abenduaren 31ra arte luzatu zuen egokitzapen hori egiteko epea.

PROPOSATUTAKO ALDAKETAK

Egia esan, proposamen honek ez du estatutu-araudiaren edukia aldatzen, forma baizik. Ez dago organo sozialen funtzionamenduari eta bazkideen eskubide eta betebeharrei eragiten dien aldaketarik. Lege berria indarrean sartzeak dakartzan berrikuntzak baino ez dira inplementatzen, eta berrikuntza horiek txosten honi erantsitako testu bategina irakurrita ondoriozta daitezke. Adierazpen gisa, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- Euskara, Asti Lekuko hizkuntza ofiziala
- Bazkideen informazio-eskubidea indartzea
- Doikuntzak gizarte-diziplinako araubidean: hutsegiteen tipifikazio eskusiboa estatutuetan, eta arau-hausteen preskripzioa zenbatzen hastea
- Batzar orokorra sozietatearen ekitaldia itxi eta lehenengo 6 hilabeteen barruan egiteko betebeharra
- Organo sozialen bileretan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzeko aukera.
- Hirugarren deialdiaren inplementazioa
- Sozietatearen erabakiak aurkaratzeko prozedura merkataritzako legeriarekin parekatzea
- Administrazio-organoaren funtzionamendu-alderdiak modernizatzea
- Bazkideek kapital sozialerako ekarpenetara mugatutako erantzukizuna argitzea eta mugatzea
- Hizkuntza inklusibora egokitzea

Egokitzapena errazteko, esan dugun bezala, gure kooperatibaren funtzionamendu-araubidean funtsezko aldaketarik ez dakarrena, justifikazio-txosten honen zati den testu bategina egitea erabaki da.

Egokitzapena errazteko, esan dugun bezala, gure kooperatibaren funtzionamendu-araubidean funtsezko aldaketarik ez dakarrena, justifikazio-txosten honen zati den testu bategina egitea erabaki da.

TESTU BATEGINA EGITEA

Behin lege berriak ezarritako egokitzapenak egiteko betebeharrean sartuta, Errektore Kontseiluak egokitzat jo du estatutuen testuategina egitea, estatutuen kontsulta eta aplikazioa zailduko lukeen arau-sakabanatzea saihesteko.

Agiri honekin batera doan txostena irakurrita, proposatutako aldaketa guzti-guztiak ondorioztatzen dira, bai arau-araubide berriak behartutakoak, bai bertan jasotako hautazkoak.

Ondorio gisa, esan dezakegu, estatutu-testu osoaren berritasun formalak eragin dezakeen lehen inpresioa gorabehera, testuategin berriak ez duela egungo sozietate-araubidea aldatzen, baizik eta kooperatiba-legedi berrira formaz egokitzea baino ez dela.

Ondorioz, azaldutakoaren ondorioz, justifikazio-txosten hau, artikuluen aldaketa-taularekin eta testuateginaren eranskinarekin batera, hura osatzen duena, estatutuak aldatzeko proposamen formala da, eta hurrengo Batzar Nagusian aurkeztuko da, estatutuetan ezarritako bideetatik onar dadin, hala badagokio.

ARTIKUKUEN ALDAKETA TAULA

GAIA	ARTIKULUAK	IRUZKINA
Lege berriaren aipamenak	1, 3, 20, 21, 22, 31, 36, 37, 38, 42, 55, 60	Artikulu zaharretan 4/1993 Legea aipatzen zen. Orain 11/2019 Legea aipatzen da.
Euskararen ofizialtasuna	2	Zehaztapen hori erantsi da. Beste hizkuntza ofizialak ere erabili ahal izango dira, inguruko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta.
Hizkera inklusiboa	5, 6, 13, 16...	Estatutuen gaztelaniazko bertsioan artikulu ugari aldatzen dira hizkera inklusiboa erabiltzeko ("personas socias").
Bazkideak	5	Bazkide erabiltzaileak pertsona fisikoak dira beti. Onartzeko unean, adierazi beharko da gurasoetatik, ordezkarietatik eta tutoretatik zein izango den bazkidea.
Informazioa	8	Kooperatibako informazio-panelean sartutako bazkideen berri ematea.
	13	Informazio-bide telematikoak aipatzen dira, eta bazkideak informazio-eskaeran erabilitako hizkuntzan erantzutea aurreikusten da.
Sozietate-bajaren aurreabisua	14	Bazkide erabiltzaileen baja-aurreabisua 6 hilabetetik 3ra igaroko da.
Hutsegiten preskripzioa	20	Preskripzioaren zenbaketa hutsegitea egiten denean hasten da, ez Kontseilu Errektoreak horren berri duenean.
Aldaketak Batzarrean	25, 26	

		Lehen seihilekoan ez ezik, webgunean argitaratzeko aukera ere egin behar da, egunkariak ordezkatzuz, bideokonferentzia bidez parte hartzeko aukera emanez, aktari buruzko zenbait zehaztapen eginez. Batzarra hirugarren deialdian egiteko aukera, gutxieneko quorumaren betekizunik gabe.
Erabakiak aurkaratzea	23	Idazketa aldatu da, legearekin bat etortzeko. Merkataritzako legeriarekin parekatzea. Aurkaratzea urtebetean iraungitzea.
Errektore Kontseilua	31	Uko egin ondoren, Kontseiluko postu hutsak kooptazio bidez bete daitezke hurrengo batzarrerara arte.
Uko egitea	31	Legearen testura egokitzea.
Bateraezintasunak	31	Legearen testuaren transkripzioa horri buruz
Baliabide telematikoen erabilera	32	Bileretan baliabide telematikoak erabiltzeko aukera.
Zor sozialengatiko erantzukizuna	39	Bazkideen erantzukizuna kapital sozialari egiten dizkioten ekarpenetara mugatzen da. Kooperatibarekin sinatutako kontratuak dituzten bazkideak kontratu horiei lotuta daude, nahiz eta baja eman.
Kapital sozialerako ekarpenen itzulketaren ukagarritasuna	40	Errektore Kontseiluaren ahala, 11/2019 Legearen 60-1-b artikuluan aurreikusia.
Bazkideen hartzekodunak	45	Ez dute eskubiderik izango kooperatiben ondasunen gainean, ez eta pertsonen kapital sozialari egindako ekarpenen gainean ere.
Nahitaezko funtsak	52	Hezkuntzarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren izena eguneratu da. COFIP
Galerak egoztea	54	Galerak FROri egoztea, kapital sozialaren % 50 gainditzen duenean.
Desegitea	59	Idazketa hobetzea
Sozietatearen ondasunak esleitzea	61	Lege berrira egokitzen da. Aurreko idazketan, indargabetutako legera jotzen zen, edukia kopiatu gabe.
Delituen prebentzioa	Hirugarren gehigarria	Erantzukizun penalerako prebentzioa, pertsona juridiko gisa.
Indarkeria aurkako sexistaren bitarteko espezifikoak	Laugarren gehigarria	Indarkeria-mota hori saihesteko neurriak hartzeko konpromisoa.

Goiburuko lekuan eta egunean,

ASTI LEKU IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEKO ERREKTORE KONTSEILUA